

AMESETAKO EUSKERIA

Gaztetan, euskeraz idazten asi izan gintzazanean, sabindar amurratuak izan gintzazan eta itzen izpiakera guztiak ez direala, (ezeze), *leban*, *leuguban* eta Bilbo'ko Euzko Gastedikoeri ikasitako barrikeri ganorabako asko idatzi oi genduzan, areik, kaletarrak, guk baserritarrok baiño euskeraz obeto ekielakoan. Geure euskera jatorra itxi eta «espexetik urtengo nazanean» «joango gareanean» eta abar esaten be asita nengoan ni neu, naiz-eta guk «urteten dodanean» eta abar esan.

Leban, *leuguban* eta olangoak, «amesetako euskerea dozak», esan eustan, bein, J.A. Oar-Arteta'k geure erriko semea zan euskaltzale argiak. Baiña, gure gazte-gogoak etzegozan, orduan, erri-euskera benetakoari jarraitzeko eta adiñekoak erabilli eraien berbeta jatorrari ez geuntsan jaramon larregirik egiten.

Emengo guda ankerra amaitu ondoren, Larriñaga'ko espexete zaar baizen zikiñean euki genduezan urte luzeetan, euskeraz etzekieneri irakasten eta genkienak be obeto ikasten ekin izan geuntzan. Nik neuk, etxean eta errian zaar eta adiñekoeri entzunda aditzak, jostaketa ta abar ba-nekizan, baiña guk lez geurea ez dan landukera (kultura) indartsua alde guztietati, bultzaka ta sakaka, geurea zeatz ondatu ta zuntzitu guraz dogunok, beti izaten dogu erderakadak eta abar kendu bearra.

Naiz-eta asieran diñodan amesetako euskerea erabilli, ni neu baserritar euskeldun uts-utsa nintzan: euskal-sen andiaren jabe nintzan; eta, Gastedikoen barrikeriak, sasi-idazleen atzekoz-

aurrerakadak, izparri ganorabakoak eta abar itxi, itz baten esanda, «amesetako euskera lorriña» itxi eta neuk nekian egiazko berbetea erabilten asi izan nintzan, erderakada batzuk zuzenduez.

Ondo nekian gure guraso ta enpaiduak, naiz-ta guk espetetik *urteten nazenean* esan, *urten naitenean* esan eroiena eta *joango gareanian* barik *joan gaitezanean*; eta bardintasun-atxakiz asmauriko *leban*, *leuguban* eta abar inok erabilten etxituana.

Erriko zaarrak artu izan nituan, ba, benetako Euskalzaintzat eta buru ta biotz oratu izan neutsan erriak erabilan euskera jatorrari. Arrezkero, esakizunen bat idazteko eragozpenik izaten dodanean, «gure gurasoak au aulan esan eroien» gogoratzen yat eta areixek itz egiten eben eran idatzi.

Aldi onetan be ba-dira batua edo lorriña dala-ta dakien baiño be askozaz txartoago itz egiten eta idazten diarduen euskeldun jatorrak, euren bizi-modu guztia erderaz dagien eta euskerea ustegoz baiño ez dakien *maixu jakintsuek* dakiela euskeraz ondo uste daben txoriburuak. Egunen baten konturatuko al dira, geu bere konturatu izan gintzazanez eta dirua irabazteko baiño gura ez dabenen euskera gaiztoa itxirik asiko al dira euren (erriaren) benetako euskeraz itz egin eta idazten.

Txoriburukeri ta amesetak itxi ta dagoan lekuan sendo eutsi bearrean dago gure berbetea. Euskeraz etxean, euskeraz bear-lekuan, euskeraz kalean, euskeraz basoan eta euskerea bizi-kerako egiñen guztietan darabilgunona dogu euskerea eta ez, bigarren berbarako erderara joten daben, or zear dabizan lorrinzaile erdalzale agozabal buruberoena.

Eutsi daiogun, ba, gure erri-euskera benetakoari, indarrez ezarri guraz diarduen euskera lorriña arbuiaturik, erdereak iruntzi ez dagiskuzan euskerea ta, geure izakerea.

Buru ta biotz gogoz joka ba'dadigu, eragozpen eta ostopo guztiak menperaturik, erriaren euskera benetakoak burua jasoko dau.

Aurre-Aprreiz